



BALIO PROPOSAMENA

KRESALAREN eginkizun nagusia surfa praktikatzeko jantziak egitea da, baina era bitxi batean.

“Kresal” hitzak gaztelaniaz “salitre” esan nahi du, eta izen ezin hobe iruditzen zaigu gure negozioarentzat. **Itsasoa beti gurekin daramagun zerbait dela uste dugu**, eta enpresa bezala, bere zainketarekin konprometituta gaude.

Gure ekoizteko modua **berritzailea** da ur-kirolen arloan, jantziak egiteko neoprenoa birziklatua izango delako ahal den neurrian. Horretarako, bezeroak bere traje zaharra ekarriko du eta guk egoera onean dauden neoprenoaren zatiak berrerabiliko ditugu berri bat sortzeko.



Gainera, gure jantziak **esklusiboak eta pertsonalizatuak** izango dira guk geuk diseinatuko ditugulako. Ezin izango dira bi jantzi berdina aurkitu eta horrek ere enpresa bezala desberdintzen gaitu.



KRESALAREN helburua, neoprenoak sortu dezakeen kutsadurarekin amaitzea da, **ekonomia zirkularraren** bitartez.

Ekonomia zirkularrean erabilitako materialak bota ordez berreskuratu egiten dira, produktu berriak ekoizteko erabiliz berriz ere ekonomian txertatzeko.

Hartara, ez dago natur baliabideetara jo beharrik materialak eskuratzeko eta, era berean, erabilitako produktuak ez dira zabor bilakatzen, berriz ere zirkuituan sartzen baitira balioari eutsiz.